

## **10. Eranskina**

### **“AUTOEZAGUTZA DESBERDINAK EZAGUTUZ”**

#### **1. Atala: Autoezagutzaren definizioaren prozesua**

Hasiera batean, ikasleek banandutako hitzei dagokionez eman dituzten erantzunak:

- AUTO-: *ni, norberak, bere burua.*
- EZAGUTZA-: *dakizuna, ezagutzen duzuna, trebetasun eta ahuleziez ohartzea, onartzea, sentimenduak zeintzuk diren eta fiskoa nolakoa den ezagutzea.*

Ondoren sortu egin duten definizioa:

*“Autoezagutza, norberak bere burua ezagutzea da. Hau da, zure trebetasun eta ahuleziez ohartzea eta onartzea”.*

#### **2. Atala: Lau pertsonaien egoerak aztertzean gertatutakoa**

- MIKEL

Lehenengo kasua irakurri egin dugunean, Mikelen kasua, ballet-a eta futbola aldi berean egiten duen umea denez, ea zer iruditzen zaien galdetu zaie, baita ekintza horiek aldi berean praktikatzten dituen beste norbait ea ezagutzen duten ere.

Galdera horien aurrean, ikasle gehienek ados azaldu dira, izan ere, mutil batek, aldi berean, futbola eta ballet-a egitea nahiko arraroa iruditzen zaiela aitortu dute. Dena den, ez zaiela txarto iruditzen eta ez dutela bi ekintza horiek egiten dituen inor ezagutzen aipatu dute.

Gelan, futbola ea nortzuk egiten duten galdetu zaienean, mutilek bakarrik altxatu egin dute eskua. Nesken kasuan, aldiz, bi neskek altxatu egin dute eskua.

- WINNIE

Hurrengo kasuarekin, Winnirekin hain zuzen ere, ikasleek berebiziko arreta jarri dute, neskaren makulak direla eta. Ikasle batek, bere amonari ere makula horiek txikitan agertu zitzaizkiola aipatu egin du. Gainerakoek, ea orain ondo dagoen, hau da, ea osasuntsu badagoen galdetu dute ardura erakutsiz. Horren aurrean, ikasle horrek, bere

amona primeran dagoela eta gaixotasun horrek ez duela bestelako eraginik azaldu egin die.

Esan beharra dago, aipatu dutenaren arabera, inoiz ez dutela Winnie iragarkietan ikusi. Beraz, hemendik aurrera, ikusten dutenean, ezaguna egingo zaie.

- MARKEL

Markelen kasuan, liburuak irakurtzea gustatzen zaiola irakurri dutenean, ikasle batek, “*Que friki*” aipatu du ahoz gora. Gainerako ikasleek ez dute entzun, hori dela eta ez da irakurketa moztu. Amaitu dutenean, ea zergatik hori esan duen galdetu zaio eta ikasle horrek, lotsatuta agertu da, ezer esan barik. Gainera, beste ikasle batek, irakurtzeagatik ez dela *frikia* izan behar erantzun dio. Honen aurrean, ikasleak, berriz ere lotsatuta, erratuta zegoela onartu du, bakoitzak bere gustuak dituela aipatuz.

- AMALE

Amalaren aurkezpena irakurtzera joan direnean, bere argazkia ikusi bezain pronto, beldurra ematen duela aipatu egin du ikasle batek baino gehiago. Amale ilegorria izanda, gela horretan bera bezalako inor ez dagoela esan dute. Hori dela eta, eskolan dauden ilegorriak izendatzen hasi dira, baita haien familiako norbait ere aipatu dute.